

Antibiotikoekiko erresistenteak diren bakterioen ebaluazioa txerri- eta hegazti-azientetan

EFSAk duela gutxi argitaratu dituen bi txostenetan, EBn garrantzi gehien duten azientetan gaixotasun infekziosoak eragiten dituzten, osasun publikoa arriskuan jartzen duten eta antibiotikoekiko erresistenteak diren bakterioak identifikatu eta ebaluatzen dira.

Arlo horretako adituek egindako azterlana egungo literatura zientifikoaren eta eskura dauden datuen berrikuspenean oinarritu da.

Patogeno erresistente gehienak ebaluatu ziren eta EFSAren ondorioa da, horien guztien artean, *Escherichia coli* eta *Brachyspira hyodysenteriae* direla EBko txerri-azientan garrantzi klinikoak duten patogeno erresistente esanguratsuenak.

Kaltetutako txerrietan bakterio erresistenteak kontrolatzeko ezarritako monitorizazio-sistemak ez daude EBko estatu kide guztietan, eta horrek zaildu egiten du txerriei eragiten dieten bakterio erresistenteen mailei buruzko behin betiko ondorioak ateratzea.

Hala eta guztiz ere, gehien erabiltzen diren antimikrobianoen konbinazioetan (adibidez, *S.suis* penizilinetan) sortzen diren garrantzi klinikoko mikrobioen aurkako erresistentziak (RAM) deskribatu ahal izan dira, eta garrantzi klinikoak duten RAM fenotipo berrien agerpena (*A. pleuropneumoniae*, *P. multocida* eta *G. parasuis*) edo lehendik zeudenetako aldaketak hauteman dira.

Txerrien kasuan bezala, Europan ez zegoen daturik eskuragarri, eta horrek zaildu egin zuen behin betiko ondorioak ateratzea hegazti-hazkuntzan. Hala ere, eskuragarri dagoen informazioa baliagarria da garrantzi klinikoak duten RAM fenotipo berrien agerpena edo lehendik zeudenetako aldaketak hautemateko. Hori da ekoizpen-sistemetan izandako aldaketengatik garrantzia hartu duten patogeno batzuen kasua, adibidez, *Enterococcus* eta *P.multocida* patogenoena (hazkundearen sustatzaile gisa erabiltzeari utzi zaio eta erabilera profilaktikoa murriztu da).

Patogeno erresistente gehienak ebaluatu ziren eta EFSAren ondorioa da, horien guztien artean, *Escherichia coli*, *Enterococcus faecalis* eta *Enterococcus cecorum* direla EBko hegazti-hazkuntzan garrantzi klinikoak duten patogeno erresistente esanguratsuenak.

Patogeno horiek sortutako RAMEi buruzko datuak biltzea beharrezkoa da, ez soilik animalien osasuna zaintzeko, baita abeltzaintzan antimikrobianoen erabilera arduratsua eta egokia sustatzeko ere. Horregatik, EFSAren gomendioak horren ingurukoak dira:

- **Datuak biltzerakoan homogeneotasuna mantentzea**, EB osoan irizpide komunak erabilita (ebaluazioa edo herrialdeen arteko konparazioa erraztuko luke)
- Estatu kideetako zaintza-programetan erabiltzen diren **metodologiak harmonizatzea**: laginketa-prozedurak eta mikrobioen aurkako sentikortasun-testak.
- **Nazioz gaindiko monitorizazio-sistemak**

Eskortako hegaztien haragian Campylobacter bakterioak kontrolatzeko gida

Estatu Batuetako Nekazaritza Saileko (USDA) Elikadura Ikuskaritza eta Segurtasun Zerbitzuak (FSIS) hegazti-establezimendu txikiei bi lan garrantzitsutan laguntzeko gida bat argitaratu du, Campylobacter bakterioekin lotutako arriskuak murrizteko:

1. Hil aurreko eta ondorengo esku-hartzeak identifikatzea eta ezartzea, AAKPK sistemaren zati gisa.
2. Laborategiko laginen emaitzak erabiltzea ezarritako sistemaren egokitasuna ebaluatzeko.

Gida honetako informazioa eskortako hegaztiak hiltzeko eta prozesatzeko establezimenduei zuzenduta dago, kontrol-puntu kritikoen kudeaketa errazteko.

Gidan deskribatutako eredu proposamen bat da, eta egokitu egin beharko da ustiategi bakoitzera, edo, bestela, antzeko eraginkortasuna duen beste eredu bat ezarri beharko da.

Hegazti-ustiategiak antolatzeke araudi berria

Argitaratu berri den uztailaren 27ko 637/2021 Errege Dekretuak, hegazti-haztegiak antolatzeke oinarrizko arauak ezartzen dituenak, indartu egiten ditu abere-osasunaren eta baserrietako biosegurtasunaren arloko betekizunak, eta ingurumen-arloko konpromisoak hartzea eskatzen du, ura, airea eta lurzorua babestearekin eta klima-aldaketaren aurkako borrokarekin lotuta.

Errege Dekretu berri horrek **sakon berrikusten du orain arte haragirako hegazti-sektorerako indarrean zegoen araudia**, 2005ekoa baitzen, eta erruteke hegazti-sektorea ere jasotzen du, orain arte ez baitzuen berariazko antolamendu-araurik.

Araudia berri horrek ezartzen dituen berrikuntzen artean, honako hauek nabarmendu behar dira:

- Ustiategiko **albaitariaren figura nahitaez sartu behar da**, eta hura arduratuko da animalien osasunarekin eta ongizatearekin lotutako alderdiei buruz aholkatzeaz.
- **Abeletxean kudeaketa-sistema integral bat izateke betebeharra**. Sistema horretan, besteak beste, honako arlo hauetan ezarritako planak eta protokoloak jasoko dira: osasun-arloa, garbitasuna, instalazioen mantentze-lanak, animalien ongizatea, simaurrak edo hainbat hondakin kudeatzea, eta antibiotikoen prestakuntza eta kontrola.
- **Animalien ongizatearen arloke egungo arau-esparrua finkatzea**, prestakuntza-baldintza

horizontalak ezarriz eta abeletxe bakoitzerako banakako plan bat eskatuz, animalien ongizaterako arrisku potentzialak ebaluatzeko.

- **Abeletxeek simaurrak kudeatzeko plan bat izan behar dute nahitaez**, airea eta lurzoruak kutsa ez daitezen. Plan hori ingurumen kudeaketarako plan indibidualizatu baten parte izango da abeletxe bakoitzerako.
- **Abeletxeek gas kutsagarrien isuriak murrizteko neurriak martxan jartzeko betebeharra**, batez ere amoniakoarena eta berotegi-efektuko gasena, eta erregistroak banan-banan izan beharko dituzte.

“Eztia abaraskan” eta “abaraska zatiak dituen eztia” ekoiztean aintzat hartzekoak

AESANek duela gutxi argitaratu du interpretazio-ohar bat, “eztia abaraskan” eta “abaraska-zatiak dituen eztia” ekoizteari dagokionez. Horiek eztiaren gaineko kalitate-araua onartzen duen abuztuaren 1eko 1049/2003 Errege Dekretuan jasotzen dira.

Ohar horretan agentziak adierazitakoaren arabera, eztiaren ekoizpen-mota horretan aintzat hartu behar da abaraskak egiteko argizariaren jatorria.

Erlezaintzan oso ohikoa da abaraskak osatzen dituzten argizari-orriak erabiltzea, eta horietan erleek euren gelaxkak egiten dituzte. Denboraldi bakoitzean, abaraskaren zati bat urtu egiten da orri berriak egiteko. Hori erlezainak berak egin dezake edo establezimendu batera igorri, han egin dezaten. Kalkulatzen da **erlezainak berak egiten duen urteko berritze hori (% 20 inguru) zati zaharrenari dagokiola, hau da, pestiziden hondakin eta albaitaritzako sendagai gehien pilatzen dituen zatiari.**

Hori dela eta, eztiarekin batera **kontsumitzen** diren **abaraska-zati horiei** (elikagaitzat hartzen direnak) ere aplikatu behar zaizkie giza kontsumorako **ezti eta erlezaintza-produktuei** ezartzen zaizkien plagiziden eta albaitaritzako sendagaien **hondakinen gehieneko mugak.**

Ondorioz, AESANek **gomendatzen du erleen argizari birjina erabiltzea**; izan ere, murriztu egiten du abarasketan substantzia aktiboak egoteko arriskua, urtu eta berriz erabilitako argizaria erabiltzeak ez bezala.

Halaber, beharrezkoa da aipatzea **arauak ez duela baimentzen** giza kontsumorako ez diren animalia-**azpiproduktuen** (SANDACH) **instalazio teknikoetako** argizari-orriak erabiltzea giza kontsumorako den eztia ekoizten duten erleen abarasketan.

Albaitaritzako medikamentuen eta beste

substantzia batzuen hondakinei buruzko txosten berria

EFSAk txosten bat argitaratu berri du, eta, bertan, laburbildu egiten ditu animalia bizietan eta animalia-produktuetan albaitaritzako medikamentuen eta beste substantzia batzuen hondakinei buruz 2019an egindako jarraipenean lortutako datuak.

Animalia bizietan eta haien produktuetan zenbait substantzien eta horien hondakinen kontrolneurriei buruzko 96/23/CE Zuzentarauarekin bat etorritz, EBko estatu kide gehienek 671.642 lagin igorri zizkioten Europako Batzordeari. Horietatik

- 594 lagin bideratu egin ziren.
- 016 lagin susmagarriak ziren
- 342 lagin inportatutako produktuetatik hartu ziren
- 690 lagin nazioko legeriaren arabera garatutako programen esparruan jaso ziren.

Estatu kide gehienek bete zituzten 96/23/CE Zuzentaruauan eta Batzordearen 97/747/CE Erabakian ezarritako laginketa-maiztasunari buruzko gutxieneko eskakizunak, eta azken 11 urteen parekoa izan zen (% 0,25-% 0,37).

Honako emaitza hauek lortu ziren:

- Agente antitiroideo eta esteroideei dagokienez, ez-betetzeek gora egin zuten zertxobait.
- Azido erresortzilikodun laktonen, substantzia debekatuen, bakterioen aurkakoan, antikokzidianoen eta koloratzaileen erabilera, berriz, murriztu egin zen.

Zoonosia eta mikrobioen aurkako erresistentzia: zaintzari buruzko emaitzen 2019ko txostena

Nekazaritza, Arrantza eta Elikagaien Ministerioak (MAPA) duela gutxi argitaratu du 2019ko zoonosiaren eta mikrobioen aurkako erresistentziaren zaintza-programaren emaitzak jasotzen dituen txostena estatu mailan.

Txosten horretan, **zoonosiaren eta mikrobioen aurkako erresistentziaren zaintza-programaren 2019ko emaitzak jaso dira**, hain zuzen ere honako mikroorganismo eta animalia-espezie hauei dagozkienak:

- **Loditzeko txerriak eta txahalak, urtebetetik beherakoak:** *Salmonella spp.*, *Campylobacter coli*, *Campylobacter jejuni* eta *E. coli* adierazleak, bai eta espektro zabaleko betalaktamasak/AmpC eta karbapenemasak ekoizten dituzten *E. coli* bakterioak ere.
- **Loditzeko txahalak, urtebetetik beherakoak:** *O157 E. coli berotoxigenikoa* (VTEC O157)

eta O157 ez diren beste *E. coli* berotoxigeniko batzuk (VTEC no-O157); horiek eragin handiagoa dute gizakien osasunean.

2003/99/EE Zuzentarauak arautu egiten du zoonosien eta agente zoonosikoen zaintza, baita horiei loturiko mikrobioen aurkako erresistentzia ere; zaintza-arlo horiek indartu egin ziren Batzordearen 652/2013/EB Exekuzio Erabakia argitaratu zenean.

Erresistentzia-ehuneko handiena erakutsi zuten mikrobioen aurkako **emaitzek antzeko joera izan zuten** EB osoan 2017an; honako hauek dira:+

1. **Salmonella enterikoa:**

- Urtebete baino gutxiagoko loditzeko txahalak:
 - sulfametoxazola- % 42,7
 - tetraziklina- % 40,9
 - ampizilina- % 30,0
- Loditzeko txerriak:
 - tetraziklina- % 60,8
 - sulfametoxazola- % 59,1
 - ampizilina- % 54,9

2. **Campilobacter jejuni:**

- Urtebete baino gutxiagoko loditzeko txahalak:
 - ziprofloxazinoa- % 52,5
 - azido nalidixikoa- % 52,1
 - tetraziklina- % 39

3. **Campilobacter coli:**

- Urtebete baino gutxiagoko loditzeko txahalak: erresistentzia-ehunekorik handiena tetraziklinaren kasuan hauteman zen, % 95,2rekin. Atzetik ditu ziprofloxazinoa, aziko nalidixikoa eta estreptomizina (% 81,0 hiru kasuetan).
- Loditzeko txerriak:
 - azido nalidixikoa- % 52,3
 - ziprofloxazinoa eta tetraziklina- % 51,5

4. **E.coli adierazleak:**

- Loditzeko txahalak: tetraziklina, sulfametoxazola eta anplizina izan ziren erresistentzia-ehunekorik handiena agertu zuten mikrobioen aurkakoak (% 43,8, % 34,4 eta % 29,0, hurrenez hurren).
- Loditzeko txerriak: tetraziklina, sulfametoxazola eta anplizina izan ziren erresistentzia-ehunekorik handiena agertu zuten mikrobioen aurkakoak (% 52,1, % 42,4 eta % 38,5, hurrenez hurren).

5. **Espektro zabaleko betalaktamasak/AmpC eta karbapenemasak ekoizten dituzten *E. coli* bakterioak:** hala txahalen nola txerrien kasuan, aztertutako mikrobioen aurkako guztiekiko erresistentzia hauteman zen (14, guztira), **kolistina, meropenem eta tigeziklinaren kasuan izan ezik.**

Gerora, datu horiek txertatu egiten dira EBren bakterio zoonosikoen mikrobioen aurkako erresistentziari eta gizaki, animalia eta elikagaien adierazleei buruzko EFSaren txostenetan.

Higiene-jardunbide egokiak hilketan: Europako Batzordearen txostena:

Txosten horrek laburbildu egiten ditu DGSANTEk 2017an EBko hainbat estatu kideetan eta Norwegian egindako bisitaldien eta hilketan aintzat hartu beharreko higiene-jardunbide egokiei buruzko tailerren emaitzak.

Zehazki, txostenak agintari eskudunen **lan-jardunbide** batzuk azpimarratzen ditu. Horiek, **eragin positiboa izan dute hilketan izan beharreko higiean**, eta, ondorioz, **kontsumitzaileen babesean**.

Bisitaldi eta tailerretan parte hartu zuten **aditu** nazionalak **in situ ezagutu zituzten bisitatutako herrialdeetan ezarri dituzten lan-jardunbideak**. Jardunbide horien xedea da, batetik, **agintari eskudunek** hautemandako arazoei heltzea eta, bestetik, **hiketa optimorako higieana eta kanalen arteko kutsaduraren maila minimoak bermatzea**.

Hainbat herrialde hasi dira dagoeneko jardunbide horiek ezartzen. Agintari eskudunen egiaztapena eta kontrola babesten duten **lan-metodo** eta **-jardunbide** komunen artean, honako hauek **nabarmendu** behar dira:

- **animalia garbien** estrategia
- **ilea moztea** bata bestearen segidan
- **kanalen kutsaduraren erregistro**-sistema
- kanalen kutsadura **egiaztatzeko prozedura ofizialak**
- erantzukizun teknikoak eta kudeaketa-arlokoak bateratzea
- irizpide **mikrobiologikoetan** oinarrituta agintari eskudunek egindako **laginketak eta analisiak**
- **hiltegiertzat arrisku-profilak** definitzea
- kontrol ofizialen **emaitzak argitaratzea**

Halaber, azpimarratu egin zen zein **garrantzitsua** den **hiltegiertzako operadoreek ongi diseinatu eta garatutako hilketa-teknikak** izatea, eta **agintari eskudunek horiek ezagutzea** eta jarrera positiboa izatea arlo horretako berrikuntzekiko.

Erlezaintzako jardunbide egokiak: erleen gaixotasun nagusiak identifikatu eta kontrolatzeko gidaliburu praktikoa

FAOk (Elikadura eta Nekazaritzarako Nazio Batuen Erakundea) erlezaintzaren arloko jardunbide egokien gidaliburu bat argitaratu berri du, Istituto Zooprofilattico

Sperimentale del Lazio e della Toscana institutuarekin (IZSLT) eta Erlezain Elkarteen Nazioarteko Federazioarekin (APIMONDIA) lankidetzan.

Dokumentu hori tresna praktikoa da erlezainei, albaitari profesionalei eta erlezaintzaren arloko aholkularitza-zerbitzuei ezti-erleen gaixotasun nagusiak identifikatzen eta kontrolatzen laguntzeko. Halatan, gaixotasunaren susmoa izanez gero, neurri egokiak hartu ahal izango dira erlauntzako agerraldi bat prebenitze edo kontrolatze aldera.

FAO-TECA serieko (nekazaritza-ekoizle txikientzako teknologiak eta praktikak) bigarren gidaliburua da. Aurrekoa, "Erleen gaixotasun nagusiak: erlezaintzako jardunbide egokiak (2018)", 2018an argitaratu zen eta gai bera jorratu zuen, baina modu orokorragoan.

Argitalpen paregabea da, informazioa modu praktikoa aurkezten baitu, irudi errazen eta eduki ulergarrien bidez. Bertan, jardunbide egokien zerrenda zehatza aurkitu ahal izango da, baita biosegurtasun-neurriak ere, ezti-erleen gaixotasun nagusiak agertzeko eta hedatzeko arriskua murrizte aldera. Horrek guztiak erlezainei eta sektoreko profesionalei euren helburua lortzen lagunduko die, eta hori, azken batean, erlezaintza-sektorea iraunkorragoa izan dadin laguntzea da.

Hegazti-ustiategien araudiaren berrikuntzak

Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioa hegazti-ustiategien ordenazio-arauak arautuko dituen Errege Dekretuaren zirriborroa ari da prestatzen, **errutekoak eta haragiarenak barne**. Orain arte, soilik haragi-ustiategiek zuten ordenazio-arau bat (1084/20059 Errege Dekretua, indargabetu egingo zutena), eta errutekoek ez zuten inolako estaldurarik.

Besteak beste, Dekretu horren helburua ustiategi horien eskakizunak animalien ekoizpenaren eta **osasunaren** egungo erronketara egokitzea da, **biosegurtasunean, ingurumenaren** babesean eta **animalien ongizatean zentratuz**.

Arauk, ustiategiaren tamainuaren arabere, badintza desberdinak ezarriten ditu.

Ustiategien definizioa tamainaren arabera

Aplikazio-eremua hegazti-ustiategi guztiek osatzen dute, hau da, arrautzenak, haragiarenak eta ugaltzekoak, autokontsumora zuzendutakoak gehitu gabe. Tamaina txikikoek salbuespen batzuk dituzte. Guztira, azken horien artean bi ustiategi mota bereiz daitezke:

- **Autokontsumoa:** haragi- (gehienez 0,5 ALU, **50 oilasko**) eta arrautza-ustiategiak (gehienez 0,3 ALU, **30 oilo**), ekoizpena komertzializatzen ez dutenak.
- **Mikroustiategiak:** gehienez 1,5 ALU (**300 oilasko, 150 oilo**) eduki eta komertzializatzen

dituena.

- **Ustiategi murriztuak:** batz besteko errolda 70 ALUkoa da haragi-oilaskoentzat (**14.000 oilasko**), eta, gehienez, 70 ALUkoa oilo erruleentzat (7.000 oilo).

Oilaskoetan hazkuntza-sistema identifikatzeko derrigortasuna

Arau horrek gehituko duen beste berrikuntzetako bat ustiategi bakoitzean erabiltzen den **ekoizpen-sistema identifikatzea izango da haragi-oilaskoen kasuan**, II. eranskinean zehazten den moduan. Izendapenak honako hauek izango dira:

- **Hazkuntza ekologikoa**
- **Barneko oilategia**
- **Barneko estentsiboa**
- **Landakoa**
- **Landako tradizionala**
- **Erabat aske hazitako landakoa**

Baldintza tekniko barriak

Ustiategietan erantzukizuna duten pertsona eta erakundeei dagokienez, haien funtzioak modu argian zehazteaz gain, **ustiategiko albitari bat izatearen beharra** gehitzen du.

Ingurumenaren arloan, **simaurraren kudeaketa egokia eta igorpenak murrizteko programa** eskatzen ditu. Bestalde, tamaina txikiko ustiategietan izan ezik, gainerakoetan **teknika erabilgarri onenak** (TEO) aplikatu beharko dira.

Animalien ongizateari begira, araudi propioa ez duten fase eta espeziei dagokienez, **Europako Kontseiluaren Gomendioak** gehitzen ditu nahitaezko arau moduan.

Bestetik, ustiategi guztiek hegazti-baserriak **kudeatzeko sistema integrala** izan beharko dute, non arauak zehaztutako baldintza guztiak betetzen direla egiaztatuko den dokumentalki. Horrez gain, autokontrolaren kontzeptua gehituko da, eta **ustiategiko albitariak bisita-plan bat bete beharko du**.

Joan den irailaren 26an amaitu zen arauaren aurkako alegazioak aurkezteko epea; Ministroen Kontseiluaren onepenen aurreko urratsa da hori.

Información de interés:

[Sector avícola de puesta](#) - MAPA

[Sector avícola de carne](#) - MAPA

Hegazti-ustiategien araudiaren berrikuntzak

Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioa hegazti-ustiategien ordenazio-arauak arautuko dituen Errege Dekretuaren zirriborroa ari da prestatzen, **errutekoak eta haragiarenak barne**. Orain arte, soilik haragi-ustiategiek zuten ordenazio-arau bat (1084/20059 Errege Dekretua, indargabetu egingo zutena), eta errutekoek ez zuten inolako estaldurarik.

Besteak beste, Dekretu horren helburua ustiategi horien eskakizunak animalien ekoizpenaren eta **osasunaren** egungo erronketara egokitzea da, **biosegurtasunean, ingurumenaren** babesean eta **animalien ongizatean zentratuz**.

Arauak, ustiategiaren tamainuaren arabere, badintza desberdinak ezarriten ditu.

Ustiategien definizioa tamainaren arabera

Aplikazio-eremua hegazti-ustiategi guztiek osatzen dute, hau da, arrautzenak, haragiarenak eta ugaltzekoak, autokontsumora zuzendutakoak gehitu gabe. Tamaina txikikoek salbuespen batzuk dituzte. Guztira, azken horien artean bi ustiategi mota bereiz daitezke:

- Autokontsumoa:** haragi- (gehienez 0,5 ALU, **50 oilasko**) eta arrautza-ustiategiak (gehienez 0,3 ALU, **30 oilo**), ekoizpena komertzializatzen ez dutenak.
- Mikroustiategiak:** gehienez 1,5 ALU (**300 oilasko, 150 oilo**) eduki eta komertzializatzen dituena.
- Ustiategi murriztuak:** batz besteko errolda 70 ALUkoa da haragi-oilaskoentzat (**14.000 oilasko**), eta, gehienez, 70 ALUkoa oilo erruleentzat (7.000 oilo).

Oilaskoetan hazkuntza-sistema identifikatzeko derrigortasuna

Arau horrek gehituko duen beste berrikuntzetako bat ustiategi bakoitzean erabiltzen den **ekoizpen-sistema identifikatzea izango da haragi-oilaskoen kasuan**, II. eranskinean zehazten den moduan. Izendapenak honako hauek izango dira:

- Hazkuntza ekologikoa**
- Barneko oilategia**
- Barneko estentsiboa**
- Landakoa**

- **Landako tradizionala**
- **Erabat aske hazitako landakoa**

Baldintza tekniko barriak

Ustiategietan erantzukizuna duten pertsona eta erakundeei dagokienez, haien funtzioak modu argian zehazteaz gain, **ustiategiko albitari bat izatearen beharra** gehitzen du.

Ingurumenaren arloan, **simaurren kudeaketa egokia eta igorpenak murrizteko programa** eskatzen ditu. Bestalde, tamaina txikiko ustiategietan izan ezik, gainerakoetan **teknika erabilgarri onenak** (TEO) aplikatu beharko dira.

Animalien ongizateari begira, araudi propioa ez duten fase eta espeziei dagokienez, **Europako Kontseiluaren Gomendioak gehitzen ditu nahitaezko arau moduan.**

Bestetik, ustiategi guztiek hegazti-baserriak **kudeatzeko sistema integrala** izan beharko dute, non arauak zehaztutako baldintza guztiak betetzen direla egiaztatuko den dokumentalki. Horrez gain, autokontrolaren kontzeptua gehituko da, eta **ustiategiko albitariak bisita-plan bat bete beharko du.**

Joan den irailaren 26an amaitu zen arauaren aurkako alegazioak aurkezteko epea; Ministroen Kontseiluaren onespeneraren aurreko urratsa da hori.

Información de interés:

[Hegazti erruleak](#) - MAPA

[Haragiko hegaztiak](#)- MAPA